


JARDUEREN OROITZA-TXOSTENA



2019

AURKIBIDEA

- 1 IKERLANAK
- 2 ARGITALPENAK
- 3 GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO
BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK
- 4 *HERMES*, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 5 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA
- 6 EUSKARA
- 7 GAZTERIA
- 8 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 9 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 10 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA
- 11 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
- 12 ZABALKUNDEA / KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA
- 13 LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA
JARDUEREN ONURADUNAK

ERANSKINA

2019ko JARDUERAK

 Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamar urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

 Gerraren amaierari buruzko ikerlana: erretreta

Aholkularitza historikoko ikerlan honen emaitzaz, Gerra Zibilean izan zen euskal erbestealdiari buruzko erakusketa antolatu da Gogora institutuarentzat.

“Euskal erbestealdia Gerra Zibilaren ondotik”, izeneko erakusketa oso irudi ezezagunek osatzen dute; erakusketaren hasieran, dokumental batek erakutsiko dizkigu Gerra Zibilaren hastapenetatik, 1936. urtean, Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zen arte, 1960. urtean, jazotakoak. Beste ikus-entzunezko batean, gerraren eraginez erbestealdira joan behar izan ziren pertsonen lekukotasunak entzungo ditugu, gerraren barruko hainbat alditakoak. Gogorak berak 2018an eta 2019an jasotako lekukotasunak dira, hain zuzen ere, Bilbo erori baino lehen ebakuatu zituzten umeei eta, lehenengoz eta bat, Frantziara eta gero Venezuelara joandako pertsonen jasotako lekukotasunak.

Beste alde batetik, erbestealdiaren hainbat memento jasotzen dituzten hogeita hamar argazki historiko daude ikusgai erakusketan. Argazkien atala Euskadiko Agiritegi Historikoaren laguntzaz atondu da eta Josu Chuecak, UPV-EHUko Historia Garaikideko irakasleak, eta Iñaki Goioanak, Sabino Arana Fundazioko historialariak jardun dute komisario erakusketaren sail horretan.

Erakusketaren atal horrek erbestealdiaren urratsak erakusten dizkigute Gerra Zibila hasi zen unetik bertatik: lehenengoa, Gipuzkoatik Bizkaira eta Lapurdira; 1939. urtean, Katalunia matxinatuen esku geratu zenean, Frantziarako erbestealdia eta iheslarietako eskaintako harrera jasotzen da erakusketan; geroago, beste herrialde batzuetarako atzerrialdi behin betikoa eta orduko Eusko Jaurlaritzak erbestealdian bete zituen eginkizunak.

Erakusketa ekainaren 18tik irailaren 23ra arte egon zen ikusgai Gogora institutuaren egoitzan (María Díaz Harokoa 3, Bilbo).

Geroago, erakusketa urte amaiera arte luzatu zen emigrazioari eta Eusko Jaurlaritzak erbestealdian gauzatu zituen eginkizunei buruzko horma-irudiak gehituta. Abenduaren 15ean, berriz, Gernikako batzar-etxera eraman zen, Agirre eta Leizaola lehendakariei egindako omenaldiaren kariaz.

2.1 | «Álava sarea. Elkartasun- eta espioitza-sare klandestinoak, 1936-1947» liburuaren argitalpenaren koordinazioa

Gerra Zibilean eta Francoren diktaduraren hasieran, 1936 eta 1940 urteen artean, Luis Álavaren abizena hartu zuen sareak ezin konta ahala elkartasun-ekintza egin zituen atxilotutakoei, iheslariei eta familiei laguntzeko. Era berean, sareko kideek atxilotutako eta erbesteratutako agintarien arteko postariarena egin zuten eta, gainera, aliatuen aldeko espioiak izan ziren Bigarren Mundu Gerran.

Honako argitalpen hau sareko kideen eta euren egintzen gaineko ikerlanaren emaitza da. Josu Chuecak, UPV-EHUko Karmele Perez Uraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga historialariek; Deustuko Unibertsitateko Elixabete Perez Gaztelu eta Luzia Alberro Goikoetxea historialariek; Roman Berriozabalek, Txema Monterok eta Iñaki Goioanak gauzatu dute ikerketa.

2.2 | «Harri-koskorra. Bakearen bila Euskadin (1993-2010)» liburuaren argitalpena

Mende erdian, Euskadi makur eta zakarkiro bizi izan da, indarkeriak itota. ETA (Euskadi Ta Askatasuna) deituriko muturreko mugimenduak ezarri eta Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak bere egindako borroka armatuak eta estatuak ETAkideen aurka burututako ekintzak malkoz bete dituzte Euskadi, bereziki, eta Espainia, oro har.

Egoera lasgarri horretan, bakea helburutzat hartuta, Julio Jauregi alderdikide eta abertzale moderatuak, 1993an, muturreko abertzaletasunari hurbildu zitzaion eta harremanetan hasi zen mugimendu horretako pertsona esanguratsu batekin. Hala, lanaren funtsa dugu 1993. urtetik 2010. urtera arte idatzitako kronika da. Lan horren helburu nagusia da “euskal gatazka” deiturikoaren irtenbidea aurkitzea, Jauregik zuzenean ezagutu eta berak parte hartutako gertakizunak azalduta.

Gizon-talde horretan, solaskide aritu ziren EAJ-PNV alderdiko, Ezker Abertzaleko eta ETA erakundeko pertsona esanguratsuak.

2.3 | Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat, “Historias de los vascos” deritzon sailean.

2019ko ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Jabier Aspuru, Ernesto García Fernández, Eduardo J. Alonso Olea, Mikel Magunazelaia, Iosu Urrea Lorea, Jabier Kaltzakorta, Óscar Álvarez Gila, Adolfo Arejita, Mikel Aramburu-Zudaire, José Luis Arribas Pastor eta Eduardo Berganza Gochi, Angel Mari Unzueta, Iñaki Etxaniz, Alex Oviedo, Iñaki Irigoien, Antón Pérez Enbeita, Isabelle de Ajuriaguerra, Sigfrido Vázquez, Begoña eta Igone Abio, Eduardo Araujo, Patxi Irurzun, Gorka Pérez de la Peña, Aitor Miñambres, Roberto González de Viñaspre, Mikel Ezkerro, José Ignacio Salazar Arechalde, José Rodríguez Fernández, Andres Urrutia, Eugenio Ibarzabal, Juan Miguel Sánchez Vigil, Ascensión Badiola, Michel Bochaca, Jean-Claude Larronde, Gotzon Lobera, Alex Ugalde, Francisco Javier Muñoz eta Joseba Agirreazkuenaga.

2.4 | Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu hainbat irratitan, batik bat, Bizkaia Irratian eta Radio Popular de Bilbao/Herri Irratia eta, noizean behin, Onda Vascan, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearren.

GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Conneticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpusa, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Illo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

Jarduera hauen helburuak ondokoak dira: gazteek eta helduek pertsona- eta lanbide-garapenean aurrera egiteko dituzten beharrezanez erantzutea eta lan-eskarmentuaren gisako aukerak eskaintzea.

2019ko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratuko ditugu, hain zuzen ere, 61, 62 eta 63. zenbakiak.



61. zenbakia



“Europa y sus territorios” (Europa eta Europako lurraldeak) izenburuaren ildotik, 61. zenbakiak gai baten bi ertz aletu ditu: Europa eraikitzekeko proiektuaren eta kontinenteko eragile nagusien (estatuak, nazioak, eskualdeak, hiriak...) egungo egoera eta etorkizuneko aukerak.

Horretarako, honako hauen ekarpenak baliatu ditugu: Xabier Ezeizabarrena, EHUKo eta Deustuko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakaslea; Valentín Popescu kazetaria; Atila Dabis, Szekler (SzNC) Kontseilu Nazionaleko Kanpo Arazoetarako komisarioa; Nicola McEwen, Edinburgoko Unibertsitateko Lurralde Politikako irakaslea eta Centre on Constitutional Change (Konstituzio Aldaketaren Zentroa) erakundeko zuzendarikidea; eta Joxerramon Bengoetxea (UPV/EHU, EHUGUNE, EUROBASQUE).

Juan M^a Uriarte Donostiako gotzain emerituak ukatu du “Euskal Herriko Elizaren arduradunek anbiguotasuna erabili dutela ETAre inguruan” ale honetan egindako elkarrizketan, haren ustez, “batere” anbiguotasunik ez delako egon. “Delituak moralki behin eta berriz eta modu anitzean gaitzesten lehenak izan ginen”, esan du.




62. zenbakia

62. zenbakia “Euskal Hezkuntzaren Memoriari” eskaini diogu. Hala, zenbaki hori baliatu dugu, XX. mendearen hastapenetatik, Euskadiko hezkuntzaren historian eragin nabarmena izan duten pertsonak, proiektuak eta esperientziak gogoratzeko.

Ale honetan, ondokoen ekarpenak jaso ditugu: Miren Josune Ariztondo, Bilbao 700 Fundazioaren zuzendaria, Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Pérez EHUKo irakasleak eta Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia. Maria Altunak egin du elkarrizketa, Altuna y Uria enpresako presidente eta ETak hil zuen Inaxio Uria enpresaburuaren alabak. Erakunde armatuak Uria hil zuen eraikuntza enpresak AHTren obretan parte



hartzeagatik. “Gure enpresak badaki nondik gatozen, eta etorkizuna sortzen jarraitu nahi dugu”, esan du.



63. zenbakia

Gero eta jende gehiagok uste du XX. mendean hartutako irizpideak garai berrietara egokitu behar direla eta euskara etorkizuneko premiekin bat etorri sustatu behar dela, jakintza edo ezagutzatik erabilerarako jauzia emanda.

Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren azken zenbakian (63.ean), Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, eta euskal kulturaren arloko ordezkari esanguratsuek, besteak beste, EAEko hizkuntza-politiken arduradun, soziolinguista eta bestek, euskara hainbat ikuspegitatik biziberritzeko jorratu behar ditugun bide berriak aztertzen dituzte. Hori guztia dugu Euskaltzaindiarekin elkarlanean joan den uztailan antolatutako mintegiaren emaitza.

Hala, Bingen Zupiriak hizkuntzaren aldeko politiken gizarte-babesari eutsi, hura zaindu eta bultzatzeko aldarria egin du, eta horiek “lehentasunezkoztat eta ezinbestekotzat” jo ditu. Hala ere, kexaz mintzatu da “oraindik ere euskararen inguruko eztabaidak interesik ez duelako pizten erabilera normalizatuarekin engeiatutik dagoen esparrutik kanpo”.

Sailburuaz gain, ondokoek parte hartu dute zenbaki honetan: Erramun Osa, Euskaltzaindiko idazkariordea; Kike Amonarriz, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria; Joseba Lozano, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria; Koldo Tellitu Ikastolen Federazioko burua; Josu Waliño, PuntuEus Fundazioaren presidentea, Jon Zarate, EHUKo Euskara eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordea, Itziar Nogeras, kulturgilea; Mertxe Mugika, AEK-ko koordinatzaile nagusia; eta J. Iñaki Etxezarreta, Arizmendi ikastolako zuzendaria.

Francesc-Marc Alvaro kazetari, idazle eta Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitateko Komunikazio eta Nazioarteko Harremanetarako Fakultateko Kazetaritza irakasleari egindako elkarrizketak osatzen du zenbakia. Haren eskutik, Kataluniako gaurkotasun politikoa, Kataluniako mugimendu independentista eta “procés” deiturikoa aztertzen ditugu.

Azken zenbaki honek David Martín Angulo artistaren ekarria ere badakar.

MINTEGIAK

5.1 Memoria historikoari buruzko mintegia: Euskal literatura idatziaren memoria

“Euskal Literatura eta Memoria” izenburuaren ildoan, Euskal kultura eta literaturaren arloko hogeita hamar bat adituk memoriaren isla aztertu zuten euskal literaturan, Bilbao 700 Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak azaroaren 20an antolatutako mintegian.



Mari Jose Olaziregik, Euskal Herriko Unibertsitateko literatura irakasleak eta MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) ikerketa talde kontsolidatuaren zuzendari denak, literatura eta memoriari buruzko hausnarketa orokor bat eginda hasi du ‘Egungo euskal literatura, memorien gotorleku’ hitzaldia.

Azken hamarkadetan, giza eta gizarte-zientzietan memoriaren azterketak izan duen garrantzia azpimarratu ostean, euskal literatura garaikidean hainbat egilek nabarmendutako ideiak aztertu zituen. Euskal literaturak gure hurbileko historia gatazkatsuaren aurrean izandako jarrera eta landutako gaiak nabarmendu zituen eta Gerra Zibilak eta ETaren jardunak euskal narratiban eragindako gaiak aipatu zituen. Besteak beste, gomuta-gune bilakatu diren hainbat kontzeptu edo alderdi jorratu zituen, hala nola “gudaria” edo lan horiek iradokitako genero-politika eta egileak. Ildo horretan, Saizarbitoria, Atxaga, Urretabizkaia, Epaltza, Cano, Zaldua, Rodriguez, Alberdi edo Agirrerren lanak izan zituen hizpide.

Orientatzeko asmoz eta etxera itzultzeko lagungarri, Inuit herriak tundran altxatzen dituen mugarrien (“Inuksuit direlakoak”) irudia erabiliz, **Patxi Zubizarreta** idazleak Literaturari eta Memoriari buruz duen ikusmoldea azaldu zuen.

Nahiz eta, askoren ustez, folklorea kulturaren azken hatsa edo hileta-meza izan, Zubizarretaren aburuz, John Berger-en ildoan, “gure kultura, gehienbat agrafoa edo

idatzi gabekoa izan arren, ondare izugarria bildu du hainbat mendetan eta ezin dugu alferrik galdu behar bezala transmititzen asmatu ez dugulako”.

Aurrerago, **Aingeru Epaltza** idazle eta itzultzaileak nabarmendu zuen “gizarte batzuek, batzuetan, uko egiten diote gertaera batzuk, bereziki lazgarriak edo traumatikoak badira, memorian gordetzeari. Uko egiten diote hurrengo belaunaldiei transmititzeari.

Hala eta guztiz ere, “gure azken indarkeria-aroan, lehen aldiz, euskal literaturak ahots propioa izan du eta memoria kolektiboa eraikitzen laguntzen ari da”, adierazi zuen.

Azkenik, **Ana Urkiza** idazle eta itzultzaileak adierazi zuen “Memoria aztarna dela. Gordetzen duguna. Gogoratzen duguna. Ahaztu ez duguna”. Urkizak adierazi zuen memoria “oraina eraikitzeko tresna dela, baina ez duela horretarako bakarrik balio; letra larriz idatzitako Historiaren beste bertsio batzuk emateaz gain, identitate propioa eraikitzeko iturria da”.

Urkizak esan zuenez, “euskal literaturak aurreneko ahalegina egin zuen identitate hori sortzeko gerra zibilaren aurretik: balioak zehaztu zituen (balioen transmititzaile izan zen). Eta euskal identitatearen definizio horrek gaur egunera arte iraun du euskal literaturari esker. Gaur egun ere, oraindik ere identitate horren eraikuntzan dihardu, tradizioa oinarri, memoria lekuko”.



Igone Etxebarriak, Labayru Fundazioaren zuzendariordeak eta mintegiaren koordinatzaileak moderatzaile lanetan jardun zuen.

5.2 | *Begiradak ETArek amaieraren aurretik eta ondotik*

Joan den urriaren 14an, Sabino Arana Fundazioak antolaturiko “Begiradak ETArek amaieraren aurretik eta ondotik” izeneko mintegiaren amaiera-ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak ETA erakundearen armagabetze eta desegitean egindako lanari buruzko txostena aurkeztu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak.

Lehendakaria buru daukan gobernuak indarkeriaren amaiera antolatua lortzeko politika integrala garatu duela gogorarazi zuen Urkulluk eta, gainera, nabarmendu zuen “ETA aberrazio etikoa” izan zela eta “sekula halakorik izan behar ez zuela eta antzekorik ez litzatekeela berriro gertatu beharko”.



ETAk su-etena iragarri zuenetik desegin zen arteko aldia, Eusko Jaurlaritzak egindakoak laburbildu zituen eta euskal gobernuaren ekintza nabarmendu zuen, armagabetzea “legezkoa, behin betikoa eta inolako ordainik gabekoa” izan zedin, bai eta, ETA desagertzeaz batera, “gure iraganari buruzko gogoeta kritikoa egin dezagun”.

Urkulluren esanetan, ETAre armagabetzea eta desegitea “ekarpen askok osaturiko elkarlanaren emaitza izan zela”.

Lehendakariak Sabino Arana Fundazioan aurkeztutako txostena, geroago, GOGORA Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Institutuan gorde zen.

Euskadiko herri-erakundeetako eta politika-, gizarte, enpresa-, sindikatu-, hezkuntza-arloko ordezkariak eta Elizaren ordezkariak ere parte hartu zuten jardunaldian, ehun batek, gutxi-asko. Mintegiak helburu izan zuen begirada anitzak, irekiak eta inklusiboak partekatzea, iraganaren memoria kritikoa eraikitzeko eta memoriarekiko bizikidetzan funtsaturiko etorkizunari ekitea.

Gipuzkoako gobernadore zibila izandako Juan Mari Jauregiren alargunak eta José María Portell kazetariarenak, Maixabel Lasak eta Carmen Torresek, hurrenez hurren, Donostiako gotzain emeritu Juan María Uriartek, Auzitegi Goreneko magistratu ohi Joaquín Giménezek eta Edurne Portela kazetariak hainbat alderdi jorratu zituzten gaiaren inguruan, hala nola prozesuan ondo eta txarto egindakoak edo ETAre amaierak euskal gizartearen izan zuen eragina eta alderantziz.

Juan Mari Atutxa

Sabino Arana Fundazioaren lehendakariak, Juan Mari Atutxak, hasierako ekitaldian, adierazi zuen iraganera begiratu behar zaiola, “baina gorroto eta herra barik” eta “baterako memorien memoria inklusiboa” osatzeko erronkari heldu behar diogula.

“Ez dugu ahaztu nahi, ezin dugu ahaztu. Isiltasuna, amnesia, ahaztura... gaurkoaren asegarri izan daitezke, baina, inolako zalantzarik gabe, biharkoaren gosegarri. Ez dugu ahaztu nahi, ez dugu ahaztu behar... biktimengatik, biktimen memoriagatik, euren duintasunagatik. Ez dugu ahaztu nahi, ez dugu ahaztu behar, ezin dugu ahaztu... belaunaldi berriengatik, joandako sasoi batean, honetan desberdin pentsatzegatik hiltzen zela jakiteko eskubidea eta betebeharra dutelako” adierazi zuen.

Edurne Portela

Deustuko Unibertsitateko errektoreorde eta jardunaldiaren moderatzaileak, José Antonio Rodríguez Ranzek, jardun ostean, mintegian parte hartu zuen bost begirada anitz horietako batek, Edurne Portela kazetariak, azpimarratu zuen zoru etiko “erkidea” partekatu behar dugula eta “bizikidetza harmonikoa guztion artean jadesteko erantzukizuna badugula”. Era berean, Portelaren iritziz, hainbat interpretazio dakarten errelato anitz egongo dira, baina, betiere “indarkeriaren deslegitimazioaren eta biktimen aitorpenaren ikuspegitik”.



Carmen Torres

Carmen Torres kazetariak, ETAk 1978an erail zuen José María Portell kazetariaren alargunak, bere bizipenak azaldu zizkien bertaratutakoei eta harro agertu zen barkatzeko dohaina barruratu duelako. “Barkamena berekoa da, barkatu ezean, bakean bizi ezin zarelako, atsedetik ezin har dezakezulako. Nik barkatu egin dut eta barkamena eskatu diot maite zaitut esaten jakin ez diodanari” adierazi zuen.

Beste alde batetik Torresek aitortu zuen “bakearekin tematu izan dela beti”. “Eta gaur egun bakean bizi gara Euskadin horrenbeste urtetan negarrez eta sufritzen egon ondoren”, adierazi zuen hunkituta.

Maixabel Lasa

Beste alde batetik, Gipuzkoako gobernadore zibil ohi Juan Mari Jauregiren alargun eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Arreta Egiteko Bulegoaren zuzendari ohiak, Maixabel Lasak, azpimarratu zuen memoria eraikitzea “biktimekiko justizia egitea ere badela”.

“Ideiak eta proiektuak eraberritu behar ditugu, ezin dugu onartu gure sufrimendua oharkabekoa izatea, ezin dugu ahaztu”, arrazoitu zuen.

Lasaren esanetan, nork bere buruari egindako gogoeta kritikoak “sendotu egiten gaitu” eta, beraz, “guk guztiok autokritika egin behar dugula» adierazi zuen.

Joaquín Giménez

Auzitegi Goreneko magistratu ohi Joaquín Giménez jaunak honela deskribatu zuen ETA: “min-iturri eta gorroto-eskola”. Hitzaldian, hainbat “eldarnio” aipatu zituen, besteak beste, Zuzenbide estatuak GAL delakoarekin egindakoak, tortura edo poliziaren abusuak; Giménez esanetan, horiek guztiak Zuzenbide estatua bera deslegitimatu duten “lasterbideak” baino ez dira izan. Era berean, salatu zuen ETako presoek sakabanaketak ez duela zentzurik talde armatuak jarduteari utzi zionetik eta “berunezko urteetan” erabilitako legeriaren salbuespen oro berraztertzeke eskatu zuen. Azkenik, Ezker Abertzaleari eskatu zion iraganaren gogoeta eta berrikuspen kritikoa egin dezan, oraindik ere ez baitu “terrorismoa deslegitimatzeko erantzukizunik hartu”.

Juan María Uriarte

Donostiako gotzain emerituak, Juan María Uriarte, esan zuen bere hitzaldian behar-beharrezkoa dugula oraindik ere itxi ez diren biktima guztien zauri ugariak “apurka-apurka sendatzea eta osatzea”. Hala ere, nabarmendu zuen “ETA desegiteak sekulako lasaitzea ekarri diola gizarteari”.

Juan María Uriarteren iritziz, ezin saihestuzko hiru helburu ditugu aurrean: batetik, biktimei eragindako sufrikarioa medeatzeko prozesuak azkentzea; bestetik, iraganaren memoria kritikoa eraikitzea; eta, azkenik, espetxe-politika gizatiartzea. Terrorismoaren aurkako legeria giza eskubideen argitan berraztertu behar dela nabarmendu ostean, adierazi zuen espetxetik ateratzen diren presoak omentzeko zantzu eta keinu guztiak “ekidin” behar direla.

5.3 | XII. Bilboko Elkarrizketak

Europako Alderdi Demokratarekin (PDE-EDP) elkarlanean, Bilboko Elkarrizketen 12. edizioa antolatuko dugu. Bertan, Latinoamerikako politikariek, europarrek eta

nazioarteko adituek Europaren eta Latinoamerikaren arteko harremanei eragiten dieten gaurkotasuneko hainbat gai aztertuko dituzte.

Espainiako Estatuko hauteskunde orokorrek eta Argentina eta Uruguaiako presidentetzakoek (2019ko urri-azaroan), eta Txilen izandako istiluak (herrialde hori izan behar genuen hizpide aurtengo jardunaldietan), eragina izan dute hizlarien agendan eta, hortaz, topaldia 2020ko urtarrilaren 31ra arte atzeratu behar izan dugu.

5.4 | *Berlingo harresiaren erorketaren 30. urteurrena*

Aurten, Berlingo harresia erori zenetik 30. urteurrena izan dela eta, Europako Alderdi Demokratikak (PDE-EDP) eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuten ekainaren 20an, gertakizun historiko horren aurreko politika-, gizarte- eta ekonomia-aldaketetako batzuk aztertzeko.



Jardunaldi horren lehen atalean, jazoera historiko hark nazioartean izan zuen oihartzuna aztertu eta ebaluatu zen, bai eta Europako Ekialdeko eta Hego-ekialdeko herrialde ugari izan zituzten erabateko aldaketak, EBra eta OTAN erakundera batu ostean.

Mintegiaren bigarren atalean, berriz, antzinako Jugoslavian 1989. urtetik aurrera gertatu zirenak eta horien ondorioak jorratu genituen. Beste alde batetik, Balkanetako oraingo egoera aztertu genuen.

ECFR (European Council on Foreign Relations) erakundeko Madrilgo bulegoko zuzendari ohi Francisco de Borja Lasheras jaunak aurkeztu eta moderatu zuen mintegia. Hizlari gisa, ondokoek parte hartu zuten: Jasmin Mujanovic, aholkulari politikoa, Europako hego-ekialdeko gaien analista eta *"The crisis of Democracy in the Balkans"* liburuaren egilea; Anna Korbut kazetaria, Chatham House erakundeko Robert Bosch Fellowships akademiako kidea; Przemyslaw Kazaniecky, PDEren

kontseiluko kidea eta Stronnictwo Demokratyczne alderdiaren Batzar Nagusiko kidea; eta Valentín Popescu kazetaria.



5.5 | *Europako Parlamenturako lehen hauteskundeak 40. urteurrena*

Apirilaren 5ean, Europako Demokraten Institutuarekin (IED) batera, “Europako demokraziarantz: 40 urte Europako Parlamenturako lehen hauteskundeak egin zirenetik” izeneko mintegia egin genuen, Europako ganberak azken 40 urte hauetan izan duen bilakaera politikoari buruz hausnartzeko: baterakuntza nola garatu den, gaur egun zein unetan dagoen eta Batasunaren etorkizuneko testuingurua zein izan daitekeen.

Hogeita hamar bat adituk –besteak beste, irakasleak, politikariak eta erakunde-ordezkariek– parte hartuko zuten mintegian. Hizlariak, berriz, honako hauek izan ziren: Antonio Argenziano, Europako Gazteria Federalistako idazkari nagusia; Claes H. de Vreese, Europan, gai horretako ikergune handiena den The Amsterdam School of Communication Research (ASCoR) erakundeko Politika Komunikazioko irakaslea; Petr Mucha, Prahako 2000 Fundazioaren Programen Batzordeko kidea; Igor Filibi, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako irakaslea; eta Txema Montero eta Josu Ortuondo, Europako Parlamentuko kide ohiak.



5.6 | Garapenerako Lankidetzari buruzko jardunaldia

Sabino Arana Fundazioak azken urteotan sustatu ohi dituen Garapenerako Lankidetzari buruzko jardunaldien alorrean, ekainaren 12an, asteazkenarekin, ondoko izenburua duen mintegia egin genuen egoitzan: “Afrika: garabidean den kontinente baten erronkak. Gazteak, emakumeak, urbanizazioa eta migrazioak”.



Mintegi horretan, Mbuyi Kabunda aritu zen hizlari, Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Nazioarteko Harremanen eta Afrikako Ikasketen irakaslea. Kabundak ehun lan inguru argitaratu ditu Afrikako herrialdeen arteko harremanei buruz (eskualde-integrazioari buruz), garapenari eta generoari lotutako arazoei buruz, giza eskubideei buruz, Afrikako gatazka eta etniei buruz, barruko eta kanpoko migrazioei buruz, eta Hego-Hego lankidetzari buruz (gai horien

guztien inguruan parte hartu du nazioarteko hainbat biltzar eta jardunalditan).

Hitzaldian, Kabunda irakasleak adierazi zuen “behar-beharrezkoa dela gurean errotu diren eta alderdi populistek nahiz hedabideek zabaldu dituzten hiru mitoak desagerraraztea: migratzaileen inbasioa (edo oldea) dagoela; etorkinak pobreak direla; eta etorkinak herrialde txiroetatik datozela”.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari



nagusiak, **Jonan Fernándezek**, eta Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, **Juan M^a Atutxak**, hasiera eman zioten jardunaldiari. Mbuyi Kabundaren hitzaldi nagusiaren ondotik, komunikazio bana plazaratu zuten CEAR-Euskadiko zuzendari **Patricia Bárcenak** eta **Xabier Aierdi** soziologoak.

Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Euskal Lankidetzaz Agentziako zuzendariak, **Paul Ortegak**, moderatzaile jardun zuen eztabaida-saioan. Garapenerako nazioarteko lankidetzako profesionalak, lankidetzaz-agentzia eta antolakundeetako ordezkariak, katedradunek eta bestek parte hartu zuten mintegian, gutxi gorabehera, berrogei lagunek.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

5.7 *Eresoinka* taldearen azken emanaldien eta *Euzkadi* futbol-taldearen azken partiden 80. urteurrena



1936 eta 1939 urteen artean, Euskadin izan zen garai lazarrian, erbestealdian garatutako bi ekimenek argiro frogatu zuten Lehendakari Agirre lehendakariak esandakoa: «euskal lurraldean indarrez sartu ahalko zarete, baina Euskal Herriaren arima sekula ezin izango duzue eskuratu». Bi ekimen horiek *Eresoinka* abesbatza eta dantza-taldea eta *Euzkadi* futbol-taldea izan ziren.

Gerra sasoian, euskal kulturaren eta kirolaren berri kanpoan emateko “arma” gisa erabili izan ziren bi ekimen horien nondik norakoak azaltzeko, Jean-Claude Larronde ikertzaile eta historialari lapurtarrak hitzaldia eman zuen azaroaren 14an, Sabino

Arana Fundazioaren egoitzan, ondoko izenburuaren ildoan: “Arte- eta kirol-ekimenak: Eresoinka eta Euzkadi futbol-taldea (1937-1939)”.

5.8 | *Gure nagusien interesak, beharrizanak eta kezak* **Hitzaldi-zikloa: urriaren 9an eta 23an eta abenduaren 4an**

Helduak Elkartarekin lankidetzan, gure nagusiek egun dituzten kezka handienei buruzko hitzaldi batzuk antolatu ditu Sabino Arana Fundazioak, datorren urtean ere egiteko asmoz. Osasuna, pentsioen sistema edo segurtasuna, besteak beste, guztion ahotan dabilta, baina, oro har, ez dute egungo egoeraren inguruko informazio zehatzik.



“Segurtasuna, lapurretak, iruzurrak eta maulak” izeneko lehen hitzaldia urriaren 9an egin zen. Rosa Romero eta “Juanfe” ertzainek adineko pertsonen aurkako delitu ohikoenak zein ingurumaritan egin ohi diren identifikatzen irakatsi ziguten, bai eta mota horretako delitu baten biktima izatea saihesteko prebentzio-neurri egokienak hartzen ere.

Urriaren 23an, Toti Martinez de Lezea idazleak “Euskal matriarkatua: egia edo alegia” gaia jorratu zuen, emakumeek historian zehar euskal gizartean izan duten eginkizuna eta boterea aletuta. Larrabetzun bizi den idazle gasteiztarrek euskal matriarkatura, balioen transmisiora eta mendeetan zehar euskal emakumeen inguruan eraiki diren mitoetara hurbildu gintuen.



Azkenik, abenduaren 4an, “kondairazko pertsonaiak: heroiak eraikitzen” izenburuaren ildotik, Oskar Benegas mediku eta idazleak, eleberrietarako pertsonaien sortzaile gisa duen eskarmentutik abiatuta, horien atzean ezkutatzen diren sekretu batzuen berri emango zuen: zerk edo nork inspiratzen duen, pertsonaia baten nortasuna nola sortzen duen, itxura fisikoa eta, benetan existitu izan balitz, egokituko litzaiokeen testuinguru historikoaren barruan nola jokatu lukeen.





2018. urtean, bigarren mendeurrena izan zen Casilda Iturrizar Urquijo (1818-1900) andrea jaio zenetik eta urtemuga horren ildotik, Eduardo J. Alonso Olea eta Anton Pérez Enbeita historialariek bi ikerlan gauzatu zituzten, Bizkaiko hiriburuan XIX. mendearen amaieran izan zen ongile eta mezenas handienetako baten bizitza eta egintzak sakonago ezagutzeko.

Ikerlan horien emaitzak ezagutzera emateko, Bilboko Udalak eta Sabino Arana Fundazioak bi hitzaldi antolatu zituzten apirilaren 3an eta 10ean, Burtsako eraikinean (Yohn jauregia).

Lehen hitzaldia, *Casilda Iturrizar Urquijo: aparteko emakume baten biografia* izenekoa, UPV/EHUko Historia Garaikideko irakasle titular den Eduardo J. Alonso Oleak eman zuen. Alonso Oleak Casilda Iturrizar andrearen bizitzaz eta sasoi hartako Bilboz eta Bizkaiaz mintzatu zitzaigun, hainbat esparru jorratuta: politika, erakundeak, ekonomia... Alonso Oleak bereziki aztertu zuen garai hartako gizartearen pentsamoldea, behartsuenen aldeko laguntza eman ohi zuena. Ingurumari hartan, Casilda Iturrizar adibiderik nabarmen eta esanguratsuenetakoa izan zen. Alonso irakaslearen hitzaldiaren ondoko galdera-saioan, Rosa Miren Pagola filologoak eta Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko presidenteordeak jardun zuen.

Apirilaren 10ean, Anton Pérez historialariak bigarren hitzaldia eskaini zigun: *Bizkaiko gizarte-ongintza XIX. mendearen amaieran. Casilda Iturrizarren kasua*. Antón Pérez Enbeitak, bereziki, azken 116 urteotan eman diren Epaltzaren alargunaren bekei buruz jardun zuen. Hitzaldi horretan, Joseba Agirreazkuenaga UPV/EHUko Historia Garaikideko katedraduna aritu zen aurkezle eta moderatzaile.



Armada frankistak Katalunia okupatu eta, horren ondorioz, errepublikazaleen exodoa gertatu zenetik 80 urte bete direla, Sabino Arana Fundazioak hainbat hitzaldi antolatu zituen gai hori jorratzeko, Josu Chueca eta Iñaki Goigona historialarien eskutik.



Josu Chuecak, UPV-EHUko Historiako doktore eta irakasle titularrak, lehen hitzaldia eman zuen otsailaren 14an, *“Goian zerua eta behean lurra: erbestera bidea. 1939”* izenburuaren ildoan. Hitzaldi horretan, errepublikazaleen exodoa aletu zuen, oro har. Iñaki Goigona historialariak bigarren hitzaldia eskaini zuen

otsailaren 28an, eta euskal herritarren erbestealdiaz hitz egin zigun, bereziki.

Zenbatespen batzuen arabera, 500.000 lagunek irten behar izan zuten Kataluniatik frankisten errepresiotik ihesi. Ehunka mila iheslari horien artean, sei edo zazpi mila euskal herritar zeuden, erbestealdira bigarrenez kondenatuak: horietako batzuek 1936an ihes egin zuten, Gipuzkoa okupatu ostean, eta beste batzuk 1937an, Euskadi autonomiaduna erori eta gero; guzti-guztiak Kataluniara joan ziren.

Milaka euskal herritar horien artean, bazegoen Jose Antonio Agirre lehendakaria. Izan ere, beren-beregi joan zen Paristik Kataluniara, bertan zeuden euskal iheslariak ebakutzeko lanak zuzentzera.

Josu Chuecak eta Iñaki Goioganak gizon-emakume, ume eta adineko haiek guztiek pairatu behar izan zituzten zoritxar eta zailtasun guztiak aletuko ditu: airetik nahiz lurretik egindako jazarpena, muturreko klima, kontzentrazio-esparruak, diru-eskasia, osasun-beharrianak...



5.11

Juan Ajuriagerra, anaia nagusia **Eugenio Ibarzabalen eskutik**

Eugenio Ibarzabal idazle, kazetari, ekonomialari eta politikariak hitzaldia eman zuen martxoaren 28an, «Juan Ajuriagerra. Anaia nagusia» liburua aurkezteko.



Liburu horrek euskal abertzaletasunaren erreferenteetako baten nortasuna eta izaera aletzen dizkigu.

Orain dela 40 urte, Ajuriagerra hil baino hiru hilabete lehenago, politikari jeltzaleari egindako elkarrizketetan oinarriturik, Eugenio Ibarzabalek euskal abertzaletasunari lotutako gizon erabakigarrienetako baten biografia idatzi du. Liburuan, Juan Ajuriagerraren bizipen eta egintza asko azaltzen dira: frankisten 1936ko uztailaren 18ko matxinadaren aurrean eta

ondoko egunetan zer egin zuen; gerra sasoian, informazio-arduraduna eta agintaria izanik, nola jokatu zuen; Santoñako Itunaren negoziazioetan zer-nolako parte-hartzea izan zuen; espetxealdian zer jokaera izan zuen; Donostian emandako aldi klandestinoan zer egin zuen; Eusko Jaurlaritzako Informazio Zerbitzuarekin zergatik eten zuen; ETArek sorrera; indarkeriaren aurreko jarrera; Trantsizioan izan zuen eginkizuna; eta, azkenik, konstituzioaren eztabaidan zer-nolako jarrera izan zuen.

Hitzaldian, Isabelle Ajuriagerra, Juanen iloba eta euskal kultura-eragilea, alboan izan zuen Eugenio Ibarzabalek. Isabellek euskal abertzaletasunaren buruzagi

historikoarekiko harreman barru-barrukoa eskaini zigun, familia-esparruaren eta jeltzalearen pentsamoldearen ingurukoa.

5.12 | Venezuelako egungo egoera politikoa
Gogoeta eta Hezkuntza Plangintzaren Zentroko zuzendari
Luis Ugalde josulagunaren eskutik



“Venezuela: adiskidetzeko eta berreraikitzeko etorkizuna” izenbururen ildotik, Luis Ugalde intelektualak, teologoak eta historialariak hitzaldia eman zuen ekainaren 6an, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Hitzaldi horretan, Venezuelaren egungo egoera aletu zuen eta gogoeta egin zigun herrialdearen orainaz eta geroaz. Bidean, azpimarratu zuen herrialdeko biztanle guztien adiskidetzea dela irtenbiderik onena.

Ugalde Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen eta azken 62 urteetan Latinoamerikako herrialde horretan bizi izan da. Egun, itzal handieneko agintari morala da Venezuelen eta intelektualik engaiatuenetakoa herrialdeak bizi duen krisia gainditzeko irtenbideak bilatzen.

Aitzbea Ramosek ere parte hartu zuen hitzaldian. Aitzbea Ramos Euskadin venezuelarrei migrazio-laguntza eskaintzen eta gizarteratzen laguntzen dien Tierra de Gracia elkarteko idazkaria da.

5.13 | *¡Berriro inoiz ez! Gerra irudiak 1936-1939* Bi hitzaldi: urtarrilaren 22an eta otsailaren 5ean

Bergaran, urtarrilaren 18tik otsailaren 10era ikusgai egon zen “*Berriro inoiz ez! Gerra irudiak 1936-1939*” erakusketaren baitan, Iñaki Goiogana historialariak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Lourdes Herrasti antropologoak hitzaldi bana eman zuten urtarrilaren 22an eta otsailaren 5ean.



5.14 | *80. urteurrena soldadu frankistak Bakion sartu zirela* Hitzaldia eta DVDaren aurkezpena



Maiatzaren 10ean, Bakioko *Makatzeko Iturria* kultura-elkartearekin lankidetzan, Sabino Arana Fundazioko historialari Iñaki Goioganak hitzaldia eman zuen Bizkaiko kostaldeko herri horretan. Hitzaldian, Bakion gertaturiko Gerra Zibilaren testuingurua eskaini zuen eta memoria historikoaren garrantziaz mintzatu zen.

4.15 | *Presidenteak aukeratzeko hauteskundeak Argentinan eta Uruguain*

Argentinak eta Uruguai iragan erkidea eta askotariko loturak dituzte, besteak beste, lotura ekonomikoak eta kulturalak. Aurtan, Río de la Plata ibaiaren bi ertzetako hauteskunde prozesuak ere antzekotasunak gehitu nahi zituela zirudien. Historian lehen aldiz, presidentetzarako bi itzuliak bat zetozen egun berberetan: urriaren 27an eta azaroaren 24an. Bi herrialdeetan, gainera, joera aldatuko zelako kutsua zegoen.

Argentinak lehen itzulian ebatzi zituen hauteskundeak, Alberto Fernandez aukeratuta. Uruguain, lehen itzulia egin ondoren, oposizioko hautagai nagusiak, Luis Lacalle Pouk, beste hautagaien babesa jaso zuen, eta horrek aukera eman zion helburura hurbiltzeko.



“Aldaketa Río de la Plata ibaiaren bi ertzetan: Argentinan eta Uruguain” izenburuaren ildotik, Argentinako politika-aholkulari eta CADAL (Latinoamerika Ireki eta Garatzeko Zentroa) erakundeko presidenteorde Carlos Farak aipaturiko hauteskunde-prozesuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, kanpainen ezaugarriak, testuinguru politiko eta ekonomikoak eta herrialde bakoitzaren etorkizuna aztertu zituen azaroaren 20an, Sabino Arana Fundazioan.

6.1 “Euskara indarberritzen jarraitzeko bide berriak” mintegia

Euskal kulturaren arloko laurogei ordezkari baino gehiago bildu ziren uztailaren 17an, besteak beste, EAEko hizkuntza-politiketako arduradunak, euskaltzainak, soziolinguistak, unibertsitateko irakasleak eta abar, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak elkarlanean antolatutako “Euskara biziberritzen jarraitzeko bide berriak” izeneko mintegiaren esparruan, euskara hainbat alderditatik sustatzeko bide berrien inguruan gogoeta egiteko helburuz.

Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Juan M^a Atutxak, Sabino Arana Fundazioaren lehendakariak, eman zioten hasiera ekitaldiari.

Mintzaldian, Eusko Jaurlaritzako sailburuak nabarmendu zuen “euskara biziberritzeko helburuz azken hamarkadetan eginiko lana eredugarria izan dela eta ildo horretan garatu diren hizkuntza-politikek ingurumari berrira ekarri dutela gure hizkuntza”.

Hala eta guztiz ere, Zupiriaren esanetan, “erronka berriei heldu behar diegu eta gogor lan egin beharko dugu, hizkuntza biziberritzen berriro asmatuko badugu”.

Euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko idazkari Erramun Osak koordinaturiko jardunaldi hura bost mahaitan egituratu zen. Horietan, besteak beste, EAEko eta tokiko erakundeetako langile publikoen euskararen erabilera eta euskal kulturgintzan hizkuntza biziberritzeko bide berriak jorratu ziren. Era berean, EUSKARALDIA ekimenaren ezaugarriak eta helburuak aurkeztu ziren –ekimen horren bigarren edizioa 2020ko udazkenean egingo da– eta, azkenik, euskara biziberritzeko ahaleginetan, gizarte-eragileek landu ditzaketen bideen inguruko gogoeta egin zen.



Mintegian, ondokoek aurkeztu zituzten hitzaldi eta komunikazioak: Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Miren Dobaran; Gotzon Lobera, itzultzailea eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kidea; Joseba Lozano, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria; Natxo Mosteiro, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Hizkuntza Plangintzaren arduraduna; Amaia Jauregizar, Euskaltzaindiko kide eta Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egitasmoko

ikertzailea; Jon Sarasua, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea; Estibalitz Alkorta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendaria; Euskaraldiaren koordinatzailea, Arrate Illaro; Kike Amonarriz soziolinguista; Mertxe Mujika, AEK-ko

koordinatzaile nagusia; Iban Arantzabal, Goienako zuzendari nagusia; Sagrario Aleman, euskaltzaina eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua; Koldo Tellitu, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria; Lurdes Imaz, EHIGEko koordinatzailea; Josu Waliño, PuntuEus Fundazioko zuzendaria; Mikel Irizar euskalgilea; eta Erramun Osa bera.



6.2 | “Immigrazioa eta euskara: ikuspegi baten beharraz” mintegia

Euskara biziberritzeko prozesuak aurrera jarraitzen du gizartearen esparru guztietan, horietako bakoitzean, bateko edo besteko abiadan; beste alde batetik, jakina denez, beste herrialde batzuetatik etorritako milaka pertsona txertatu dira euskal gizartean azken urteotan eta horrek aldaketak eragin ditu hizkuntzen bizikidetzaren esparruan. Ingurumari horretan, euskararen ikuspegitik, jakin izan dugu etorkinak euskarara hurbiltzen? Eta etorkinen ikuspegitik, zertarako balio die euskarak gurera datozenean?

Galdera horiei eta hizkuntzen arteko bizikidetzari –batik bat, euskarari– eragiten dioten alderdiez gogoeta egin eta esperientziak partekatzeko mintegia antolatu zuten

elkarlanean Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak. Mintegia abenduaren 12an egin zen, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken sailburuorde Lide Amilibiak migrazioari buruzko euskal itun sozialaren alderdirik garrantzitsuenak, aurtan abian jarritakoak, jorratu zituen, batez ere, euskarari eta immigrazioari buruzkoak: “Itunak azpimarratzen du immigrazioa egiturazko errealitatea dela Euskadin, eta errealitate horrek kudeaketa konplexua behar duela, hori baita migrazioa”. Eta gogorarazi zuen Ituna ez dela hitzarmen bat, hasiera baizik, “Akordioak lortzeko ahalegina, hizkuntza aniztasunaren aldeko akordio zabala, diskriminazioa desagerraraziko duen tresna bat”. Era berean, azpimarratu zuen immigrazioa ez dela oztopo euskararentzat, migratzaileak “modu naturalean” hurbiltzen baitira euskarara. “Euskara kohesio hizkuntza gisa ikusi behar dugu”, gaineratu zuen Amilibiak, “Berdintasunean oinarritutako euskal gizarte pluralagoa lortzeko”.



Beatriz Otero EHUKo irakasleak immigrazioaren ezaugarriak eta etorkizunerako joerak xehatu zituen hitzaldian. Hala, 1998an, baziren 26.334 atzerritar gure artean, eta gaur egun 221.418 dira. Oteroren arabera, fluxu horrek konpentsatzen du EAEko biztanleriaren jaitsiera, azken 20 urteetan 80.000 biztanle galdu baititu. “Horiei esker, gure biztanleria hazi egin da, eta kontuan hartu behar da gehienak geratzeko etorri direla”, nabarmendu zuen Oterok, ñabardura txiki bat gehituz: “Gehienak gazteak dira (16tik 44 urtera artekoak), emakumeak, eta horrek esan nahi du lanera etorri direla”.

Beste alde batetik, Eguzki Urteaga EHUKo Soziologia irakasleak, Ipar Euskal Herriko egoera eta berezko ezaugarriak aztertu zituen bere hitzaldian. Mapa soziolinguistikoak azken 20 urteetan izan duen bilakaera azaldu ondoren, etorkizunera begirako erronkei erreparatu zien Urteagak: “Irakaskuntza elebiduna unibertsalizatu behar da. Frantziako legeak horretarako aukera ematen du, irakasle plazak sortzea Hezkuntza Ministerioaren esku dagoen arren, neurri handi batean. Gainera, murgiltze eredua lehenetsi behar da, bai ikastolak bultzatuz, bai eredu hori orokortuz, irakaskuntza publikoan zein pribatuan; lehenik eta behin, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, eta, ondoren, bigarren hezkuntzan”. Datuak ere ekarri zituen: “Gaur egun, murgiltze eredua Haur Hezkuntzako 38 eskolatan erabiltzen da; horietatik 19 publikoak dira, eta beste hainbeste pribatuak”. Urteagaren iritziz, gazteak bezainbeste zaindu behar dira helduak: “Helduentzako euskara eskaintza bultzatu behar da, eta, batez ere, denei erakutsi euskara dela Ipar Euskal Herrian gizarteratzeko tresnarik onena dela; izan ere, berezko hizkuntza ez ezik, hizkuntza komuna ere izan daiteke”.

Euskaldun gehienak tolerantetarako dira

Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko teknikariak immigrazioak Gipuzkoan izan dituen joera nagusiak azaldu zituen, eredu ezberdinak jorratuz. Gipuzkoako hizkuntza aniztasunaren datuak eskaintzen hasi zen, lurraldean dagoen aniztasun izugarria azpimarratuz: “Atzerriko biztanleen % 80 20 estatutatik dator. Beraz, gutxienez, mila hitzun baino gehiago dituzten hamar hizkuntzatik gora daude Gipuzkoan”. Eta beste datu harrigarri bat aipatu zuen: “Biztanleen % 20k 120 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dituzte; beraz, argi dago hizkuntza aniztasuna oso errotuta dagoela lurraldean, eta horrek sekulako erronkak mahairatzen dituela”. Urangaren arabera, datu horiek ezagutzeak eta aztertzeak helburu argia izan behar du: “Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko tresna egokia sortzea da helburua”.

Xabier Aierdi soziologoak Euskal Herriko immigrazioaren inguruan aipatzen diren datuak eta diskurtsoak laburbildu zituen, eta ondoren euskarak immigrazioari eskaini diezaiokeena azaldu zuen. “EAEko biztanle gehienek uste dute etorkin atzeritarren



etorrerak ez duela euskararen garapena geldiaraziko; esaterako, tolerantzia indizeak lortu du aurten puntuaziorik altuena EAEn (% 75,32 tolerantzia da). Hau da, jendea ez dago gehiegi kezkatuta gai honekin, baina kezkarako arrazoiak badaude”, adierazi zuen. Pertsona tolerantzen talde hori “unibertsitateko jendeak, euskal hitzunik eta abertzaleek nagusiki” osatzen dutela nabarmendu zuen Aierdik. Era berean, euskal gizartean

sektore bat dagoela adierazi zuen, “Klase urbanoa eta prestatua”, euskararekiko ikuspuntu irekia duena eta seme-alabak D ereduan eskolatzen dituen. “Nolabait, hor dago euskararen bermea”, adierazi zuen.

Immigrazioaren etorkizuna eskola publikoak kudeatu beharko duela aitortu zuen. “Orduan, eskola publikoa ahaldu behar dugu, baliabidez hornitu, immigrazioa ez da anomalia bat gure herrian, eta hori beste legeria batetik abiatuta kudeatu beharko dugu”, gaineratu zuen. “Etorkizuna asmatzen jarraitu beharko dugu, eta pentsatu immigrazioarekin batera zer egin dezakegun euskararen alde”, adierazi zuen ikertzaileak. Gainera, Aierdiren arabera, hizkuntza gutxituekiko afektibitatea erakutsi behar dugu.



Mintegia bi hitzaldi-sortarekin osatu zen. Lehenengoan, MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle Ane Urizarrek gazte atzeritarrek euskararekin duten harremana aztertu zuen; Biotza Piko (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila) eta Itziar Lafuente (Gasteizko Berritzeguneko hizkuntza-normalizazioko aholkularia) ikasle atzeritarrek eskolan hizkuntza garatzeko dituzten bide berriez aritu ziren; eta Mario Zapata Topaguneko teknikariak migratzaileen hizkuntza-harreraren gaia jorratu zuen.

Bigarren hitzaldi-multzoan, Julen Aranguren, Zarauzko Udaleko Immigrazio eta Kultura Aniztasuneko teknikariak, eta EHUKo ikertzaile eta irakasle (bigarren

belaunaldiko etorkinen hizkuntza-integrazioa) Gorka Morenok hartu zuten parte, eta bi-biek migratzaile berrien eta bigarren belaunaldiko etorkinen hizkuntza integrazioa aztertu zuten.

6.3 | “Sabino Arana eta euskara: nahas-mahas desmitifikatzailea”

Sabino Aranak ez zekien euskaraz. Ikasi egin zuen. Baina ikasi ez ezik, biziberritu ere egin zuen, eta ahaleginak eta bi egin zituen desagertze zorian bide zegoen hizkuntzaren desagerpena saihesteko.

Hain zuzen ere, Zeferino Xemeinek Sabino Aranari eskaini zion biografian, euskara ikasteko eta hura ezagutarazteko egindako ahalegina nabarmendu zuen.

Gotzon Lobera zinpeko itzultzaile eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidearen eskutik, azaroaren 28an, Sabino Aranak euskarari buruz idatzi zituenak, eta beste batzuek Sabino Aranak esan omen zituenei buruz idatzi zutena ezagutu genituen.



7.1 | Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Gazteak ditugu gure gizartearen eta gure herriaren etorkizuna. Hala, Fundazioaren xederik behinena gure gazteak gizartearekin eta giza eskubideekin engaiatutako gaitasun kritikoa garatu ahal izateko balioen gaineko heziketa ematea da.

Euskara, kultura, arte plastikoak, zientzia eta teknologia sustatzea eta ikasleen trebetasunak garatzea dira programa honen helburuak.

Gure tailer guztietan, ikasleen aurretiko ezaupideetara egokitzen diren ikaskuntza-jarduerak antolatzen dira eta, tailerrei esker, ikasleek talde-lana indartzen, lankidetzan aritzen, ezagutzak partekatzen eta dagoeneko erabiltzen ez diren materialak birziklatzen ikasten dute.

2019an, 25 tailer edo jardunaldi antolatu ditugu guztira, 35 saiotan (tailerren bat bi saiotan garatu behar izan da ikasgelako ikasle guztiengana iristeko). Guztira, 645 ikasle izan dira arte plastikoak, literatura eta beste jakintza-arlo batzuk historia eta memoria historikoarekin, euskararekin edo euskal kulturarekin uztartu dituztenak.

Azpimarratzekoa da irakasleek eta hezitzaileek ere parte hartzen dutela jarduera horietan. 2019an, 64 irakasle-hezitzailek parte hartu dute.

- **ETORKIZUNA ERAIKITZEN CONSTRUYENDO EL FUTURO:**
BILBO ERAIKITZEN. CONSTRUYENDO BILBAO

Tailer honek Bilboko iragana eta oraina ezagutzea du helburu, atzoko eta gaurko irudiak konbinatuz. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, koloreztatzeko margoak eta kartoizko oinarri bat erabiltzen ditugu; gero, muntaia egiten dugu hiru dimentsioko efektua lortzeko.

Tailer honen bidez, Bizkaiko hiriburuan galdu diren antzinako eraikin, leku eta agertokiak ezagutzen ditugu eta, gero, ikasleek Bilbon dauden XXI. mendeko eraikin modernoekin nahastuko dituzte.

Taldean lan egiten dugu, ikasleak taldeko partaide eginaraziz eta, azkenean, argazkia egiten denok batera gauzatutako lanaren emaitzaren alboan.

Tailerra otsailaren 4an, 6an, 8an eta 18an eta apirilaren 3an eta 4an egin zen: Zurbaran eskola, Uribarri ikastetxe publiko eta Artxandape Ikastolako hainbat mailatako ikasleek parte hartu zuten.

- **ARTEA ZIENTZIA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA**
ARTE CIENCIA TECNOLOGÍA INNOVACIÓN:
ARGAZKI-MAKINA ETA ERREBELATZEA

Tailer honen bidez, argazkilaritzaren historian irakasten diegu ikasle txikiei.

Argazki-kamera tradizionalen printzipioak garatzen ditugu, eta argazki-kamera eraikitzen dugu, kartoizko kutxa huts batetik abiatuta.

Hala, kutxari beste bizitza bat ematen diogu eta ganbera estenoipeiko bihurtzen dugu, antzina eskuz egiten zirenak bezalakoa.

Tailer honen bigarren zatian, ikasleek argazkiak egiten dituzte eraikitako argazki-makina erabiliz eta, azkenean, argazkiak errebelatzen dituzte.

Tailerra otsailaren 13an, 15ean, 20an eta 22an egin zen, eta Epaltzaren alarguna eta Zurbaran ikastetxe publikoetako ikasleek parte hartu zuten.

- **ARTEA ZIENTZIA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA.**
ARTE CIENCIA TECNOLOGÍA INNOVACIÓN:
KOLORE HIPERKONEKTUAK

Tailer honen bitartez, kolorearen izaera abstraktu eta esperimentalena lantzen dugu, hainbat material baliatuz, magiaz beteriko marrazki erliebeduna sortzeko, gatz eta tenperak lagun, eta... azkenean... koloreak berez hiperkonektatuko dira.

Tailerra apirilaren 9an eta 11n egin zen eta Tiboli eskolako ikasleek parte hartu zuten.

- **ARTEA ZIENTZIA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA**
ARTE CIENCIA TECNOLOGÍA INNOVACIÓN
TXIMISTARGAZKIA

Tailer honen bidez, argazkigintza lantzen dugu oso ohikoa ez den ikuspegi batetik, argazkiak egiteko teknika guztiz desberdina baita; izan ere, irudiak lortzen dira argazki-kamerarik gabe.

Man Ray artistak asmatutako teknika baliatzen dugu, argia, hainbat objektu eta ehundura erabiliz, tximistargazkiak ateratzeko.

Aurrekoaz gain, marko batzuk egiten ditugu birziklatutako materialak erabiliz, ateratako irudiak erakutsi ahal izateko.

Horrela, ikasleek irudimena erabiltzen dute eta beren diseinuak sortzen dituzte, irudian ez ezik, euskarrian ere eta, hortaz, ez daude bi elementu berdin.

Tailerra apirilaren 8an eta 12an egin zen eta Tiboli eskolako ikasleek parte hartu zuten.

- **“IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURren AMAMAREKIN”**

Toti Martínez de Lezea idazlearekin lankidetzan eta “NUR” ipuinak oinarritzat hartuta, irakurtzeko ohitura eta zaletasuna sustatzen ditugu Lehen Hezkuntzako umeen artean, benetako istorioak eta benetako pertsonaiak baliatuz.

Nur Totiren biloba da eta Txinan bizi da. Ipuin-sorta honen bitartez, Totik protagonistaren adineko haurren istorioak kontatzen ditu, eta munduaz eta gertakariez duten ikuspegia eskaintzen digu.

Tailerra apirilaren 11n eta maiatzaren 7an egin zen, eta Tiboli eskolako eta Epaltzaren alarguna ikastetxe publikoko ikasleek parte hartu zuten.

- **MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA**
LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD
TAUMATROPOAK

Taumatropoa jostailu optiko bat da, itxuraz, mugitzen diren irudiak sortzeko erabiltzen dena. "Gailu" hori zinemaren aitzindarietako bat da.

Alderdi bakoitzean irudi bana duen diskoa da taumatropoa. Diskoaren muturretan, bi hari edo goma jartzen dira, hainbat aldiz bihurrituta eta, horiek luzatzean, diskoa abiada bizian biratzen hasten da. Biraketa azkar-azkarrak ilusio optikoa sorrarazten dio ikusleari, bi irudiok elkarturik daudela pentsatzen duelako.

Tailer honen helburua da umeei zinemaren oinarritzko hastapenak erakustea, jolas-ildoko jarduera sortzaile bat erabiliz. Izan ere, jostailu optiko horrek mugimenduan dagoen irudia lantzen du.

Tailerra apirilaren 10ean egin zen eta Tiboli eskolako ikasleek parte hartu zuten.

- **MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA**
LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD
KALEIDOSKOPIOA

Birziklapenaren bidez, ilusio optikoekin jolasean aritzen gara kaleidoskopio bat eraikitzen. Kaleidoskopioak argiak eta ispiluak erabiltzen ditu objektuak islatzeko eta patroiak sortzeko. Kaleidoskopioaren barruan dauden irudien ikuspegi homogeen eta errepikatua eskaintzen digu sortutako tresnak.

Tailer honen bidez, birziklapena eta arte plastikoak lantzen ditugu. Helburua da ikasleek jostailua eraikitzea ikusmen-pertzepzioa garatzeko.

Tailerra apirilaren 8an egin zen eta Epaltzaren alarguna ikastetxe publikoko ikasleek parte hartu zuten.

- **HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO**
CONOCER PARA TRANSFORMAR:
"GUERNICA" MARGOLANA BERRINTERPRETATUZ

Tailer honen bidez, euskal historia lantzen eta hurbiletik ezagutzen dugu gure historiarekiko loturarik handienetakoa duen nazioarteko artista bat, Pablo Picasso eta bere "Guernica" margolana.

Tailerraren helburua "Guernica" bat egitea da ume guztien artean, margonalaren txatalei kolorea emanda.

Banaka eta taldeka lan egin behar dute ikasleek; izan ere, parte-hartzaile bakoitzak margolan ospetsuaren zati bat berreraiki eta mihise batean irudikatzen du, tenperak erabiliz.

Banakako lana amaitu ostean, mihise guztiak batu eta kolorez betetako “Guernica” berria osatzen dute ikasleek.

“Guernica” margolanaren inguruko tailerra martxoaren 6an, apirilaren 2an, 9an eta 10ean eta maiatzaren 2an egin zen, eta Uribarri ikastetxe publikoko, Zurbaran eskolako, Tiboli eskolako eta Epaltzaren alarguna ikastetxe publikoko ikasleek parte hartu zuten.

- **HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO
CONOCER PARA TRANSFORMAR
ARBOGIFLOAK**

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifoak zer diren (euskal artzain haiek Amerikako basoetan egindako grabatuak zuhaitzetan) azaltzen diegu, gure historiaren atal ere badirelako.

Gero, hari horretatik abiatuta, giltzatako polita egiten dugu zuhaitz-xaflak edo zurezko diskoak erabiliz.

Tailer hori apirilaren 9an eta 11n egin zen, eta Artxandape ikastolako, Tiboli eskolako, Epaltzaren alarguna ikastetxe publikoko eta Uribarri ikastetxe publikoko ikasleek parte hartu zuten.

DESKRIBATUTAKO JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK

- Euskal Herriko gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-alderdi garrantzitsuenak ezagutzera ematea, bereziki, gaurkotasuna duten auzi esanguratsuenak.
- Ezaupideak zabaldu eta partekatzea jakintza-arlo askotatik.
- Gaitasun kritikoa garatzea: egungo gizarteak gaitasun kritiko handia eta ingurunea zorrotz aztertzen duten pertsonak behar ditu. Giza garapenaren alderdi hori, gure ustez, funtsezkoa eta ezinbestekoa da gazteen prestakuntzan, helduaroan gizarte-erantzukizuna izan dezaten.
- Arian-arian azaltzen zaizkigun erronka eta aukera berriei irtenbidea ematea.

Sabino Arana Fundazioa 1988 urrian sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoek herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaltu eta herritarren eskueran jartzen dituzte. Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Agiritegiko funtsetan, aipatzekoak dira XIX. Eta XX, mendeetako fitxategi historikoak, erbestealdian ziren euskal ordezkariak eta 1936ko gerran sorturiko funtsak, herrialdearen barruan nahiz kanpoan; era berean, alderdi edo elkarte politikoen agiriak, kultura-elkarteen agiriak, enpresen agiriak eta norbanakoen agiriak ere badaude.

Liburutegian eta Hemerotekan gordetako funtsak ondoko arloetakoak dira: Historia Garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak. Guztira, berrogeita hamar funts baino gehiago gordetzen dira, 4.500 instalazio-unitate, 44.520 monografia eta serieko argitalpenen (egunkari eta aldizkariak) 7.350 titulu baino gehiago, hau da, 189.400 ale inguru. Milaka agiri eta gauzaki horiek sailkatu behar dira, deskribatu eta zein bere sailean ezarri. Horiez guztiez gain, Euskal Abertzaletasunaren Museoak dohaintza ugari jasotzen ditu. Nabarmendu behar dugu fundazioak jasotzen dituen dohaintza guztiak, agiritegikoak nahiz museokoak, altruistak direla. Ez dago inolako kontraprestazio ekonomikorik. Sabino Arana Fundazioa dugu agiritegi eta museo historikoak sortu, kudeatu eta jagoten dituen bakarra. Bi baliabide horiek gizartearen zerbitzuko sortu ziren, gure ondare historikoaren eta kulturaren zabalkundea egiteko asmoz. Azken batean, eginkizun aparta betetzen dugu gure oroimen historikoa berreskuratzen.

Agiri, gauzaki, argazki eta bestelako guztiak ikertzaileen, norbanakoen, hedabideen eta besteren esku daude. Eta bertan dauden funtsen erabilgarritasun eta garrantziaren erakusgarri, esan dezagun erruz kontsultatu direla. Agiritegiko dokumentazioa baliatu dute gudari, ertzain, preso eta iheslari askok pentsioa edo kalte-ordainak kobratzeko.

Izan ere, gure ahalbideen heinean, eskaera guztiei erantzun egiten diegu. Urte hauetan guztietan, dokumentazioari lotutako eguneroko zereginenez gain (erregistroa eta deskribapena, gordetzeko eta zabalkundea egiteko) eginkizun atseginena dugu banako zein taldeko erabiltzaileei arreta egitea, ikertzaile profesionalak nahiz informazio jakinen baten bila gurera datozen norbanakoak izanik ere. Eta hori guztia egiten dugu inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.

Gure funtsak erabiltzeko, ez da baimen berezirik behar; gainera, esan dezakegu gure funtsak erabili dituzten ia guztiek oso gustura hartu dituztela eskainitako dokumentazioa, hartutako informazioa eta jasotako tratua.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hedabideek, herri-erakundeek eta bestelako antolakundeek askotan baliatzen dituztela gure funtsak liburuak irudiztatzeko, artikulak hornitzeko, erakusketak antolatzeko... eta guztiz azpimarragarria da bertako dokumentazioa oinarritzkoa gertatu izana ikerlan eta argitalpen ugari bideratzeko.

Agiritegia eta museoa aintzat harturik, 7.723 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa. Euskal ikertzaileak nagusi diren arren –Bizkaiko Lurralde Historikoan gaudela eta– katalanek, madrildarrek, frantsesek, alemanek, amerikarrek, japoniarrek eta bestek egin dituzte kontsultak gure agiritegian. Ikertzaileek gure agiri-funtsak erabili dituzte hainbat argitaletxetako ehun bat argitalpenetan. Beste alde batetik, gure fundazioak ia-ia 200 lan argitaratu ditu, monografiak eta ikus-entzunezkoak kontuan hartuta.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrak nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres...

Argazki-funtsak ere sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gaur egun, museoaren zeregin nagusiak ondokoak dira: argazki-funtsa katalogatzea, dekorazio-artearen eta arte grafikoaren funtsa berrantolatzea eta dohaintza berriak erregistratzea, inbentarioan jasotzea eta katalogatzea. Hala, milaka objektuen eta ehunka mila argazkiren zaintza kudeatzen du.

Gainera, nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Agiritegi Historikoa 2013an zabaldu zela gure lankidetzari esker, eta herritar guztien esku jarri duela euskal administrazio publikoaren 1936tik aurrerako funts historikorik behinena. Sabino Arana Fundazioak dokumentazio ugari hori guztia zaindu, kudeatu eta ikertzaile nahiz norbanakoen esku jarri du 90eko hamarkadatik. Antzeko zerbait gertatu zen, hein txikiagoan –funtsen tamainagatik diogu, ez garrantzi historikoagatik–, 2002. urtean. Urte hartan, Kataluniako *Arxiu* Nazionalari eman genion ordura arte geuk gordetako eta zaindutako Kataluniako Generalitat-earen dokumentazio historikoa (Errepublika eta erbestealdia).

LIBURUTEGIA ETA HEMEROTEKA

Espezialitateak: Historia garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak.

Funtsak (kopuruak):

Monografiak: 45.196

Egunkari eta aldizkariak: 7.342 titulu eta 189.415 ale

ZERBITZUAK (Agiritegia eta Museoa, 1992. urtetik)

Kontsultak: 7.723 (batez beste, 350 urtean)

Aretotik igarotako ikertzaileak: 771 (batez beste, 60-75 urtean)

A) OROKORRA**I. EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK**

Gure agiritegian gordeta dauden agiri-funtsekin egindako lanez gain, aipatu behar da 2019ko ekitaldian zazpi (7) bekadun hartu eta prestatu ditugula, honako hauek, hain zuzen ere: lan-trantsizioko hiru bekadun, graduiko hiru ikasle eta masterreko ikasle bat. Agiritegiko funtsetan, dokumentazioan, prentsako informazioaren hustuketan eta abarretan lan egin dute horiek guztiek.

a) AGIRITEGIKO FUNTSAK

- Norbanakoen dohaintzetatik datozen funts historikoen 300 deskribapen-fitxa baino gehiago erregistratzea; horien artean, ondokoen dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Ajuriagerra familia, Amutxategi Zelaia, Eduardo Estrade, Jose Antonio Aspuru, Iñaki Anasagasti edo EAJ-PNV alderdiaren Mundakako eta Santurtziko uri batzarenak.

- Salamancatik etorritako euskal dokumentazio abertzalea birsailkatzea (239 fitxa, EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzaren eta uri batzen dokumentazioari dagozkionak), edukien deskribapena zabalduz eta deskriptore onomastikoak eta instituzionalak erregistratuz.

- Ikus-entzunezkoen 61 fitxa erregistratzea (bideoak VHS, CD eta DVD formatuetan).

b) LIBURUTEGI KO FUNTSAK

Aurten, 1.331 lan berri erregistratu dira (iaz baino ia hiru aldiz gehiago). 2019ko abenduaren 31n, 45.709 monografiak osatzen dute Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko liburutegia. Horietatik guztietatik, 34.229 lan Bilboko instalazioetan gordeta daude eta gainerakoak, 11.480 lan, hain zuzen ere, Arteako biltegian gordeta daude.

Orain dela urte batzuk hartutako erabakiari jarraiki, Bilboko biltegian ale bakarra gordetzen da lan bakoitzeko, betiere gaia eta edukiak bat badatoz gure liburutegi espezializatuan gordetzeko ezarri ditugun irizpideekin. Gainerako lanak, oro har, Arteako liburutegira eramaten dira (baliozkotzat jotzen dira gordetzeko helburuz, bikoiztuta egon arren); bestela, beste toki batzuetara bidaltzen dira (Gaintzaren bitartez).

2019ko ekitaldian, kopuruari begiratuta, ondokoek egindako dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Francisco Allende, María Teresa Gorostiaga, Iñigo Camino, Centro de Documentación de Sabin Etxea edo Amaia Mujika, besteak beste.

c) “Uzturre” Hemeroteka

Urte osoan zehar jaso diren aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jardun dugu. Ale guztiak sailkatu, antolatu, eta bana-banaka egiaztatu ostean (behin baino gehiagotan ageri ote diren jakiteko) guztira, 46 titulu erantsi zaizkio hemerotekari 2019an (2.383 zenbaki). Uzturre hemerotekako biltegiak 500 metro linealek gorako edukiera dauka eta, dagoeneko, 7.358 titulu eta 190.465 ale gordetzen dira bertan.

Beste alde batetik, ‘Hustuketa’ izeneko datutegian (hainbat argitalpenetan, besteak beste, Euzkadi, Alderdi, Hermes Deia, Muga, JEL, Historia Contemporánea eta abarretan informazio historikoari buruz argitaratutako artikulak jasotzen dituen) 12.534 erregistro jasota daude.

II. KONTSULTAK

2019ko ekitaldian, aurreko urteetako joerari jarraituz –proportzioan–, informazioa emateko 257 eskaera jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian, gehienbat, e-postaz (114) eta telefono bidez (79). Agiritegian bertan, 34 kontsulta egin dira eta beste 30 webgunean dauden inprimakiak erabiliz.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoei, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Jasotako kontsulten banakaketa			
Norbanakoak	143	Enpresak / Ekoiztetxeak	5
Unibertsitatea / Ikerkuntza	49	Hedabideak (Deia...)	6
Gizarte- eta Kultura-erakundeak/Admin.	34	Beste batzuk	17

1992ko urritik hona, 6.405 kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA: lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa.

- DEIA: “Historia de los Vascos” sailarentzako artikuluak. Euskal Abertzaletasunaren Agiriak koordinatzen du saila eta 40 artikulua argitaratu ziren 2019an.

Argitalpenen kontrola eta koordinazioa:

- Julio Jauregi Alonsoren “Operación Grano de Arena”
- Eduardo Alondoren “Biografía de Casilda Iturrizar”, eta Antón Pérezen “Becas del Ayuntamiento de Bilbao “Casilda Iturrizar”
- “La Red Alava, 1936-1947 Ekinez osatutako elkartasun sarea / Red solidaria y de acción”, hainbat egile.
- Gregorio Arrienen “Bizkaiko auzo-eskolak”.

Hitzaldiak, elkarrizketak, parte-hartzeak jardunaldietan eta hedabideetan (17)

DATA	EKITALDIA	HIZLARIA
2019/01/22	Memoria Historikoari buruzko hitzaldia Bergaran, “Berrito inoiz ez, Gerrako irudiak” erakusketaren ildotik.	Goigana, Iñaki
2019/02/20	Zinema eta arkeologiari buruzko aurkezpena eta mahai-ingurua Arkeologi Museoa.	Goigana, Iñaki
2019/02/28	[19:30] Erbestealdiari buruzko hitzaldia SAFen.	Goigana, Iñaki
2019/03/06	[10:00] Matxitxakoko guduari buruzko elkarrizketa, telefono bidez, Radio Euskadirentzat.	Guezala, Luis de
2019/03/14	Euskaldunen 1939ko otsaileko erbestealdiari buruzko hitzaldia, Azkoitia.	Goigana, Iñaki
2019/04/05	Apirilaren 5ean eta 6an: Memoria Historikoari buruzko hitzaldia, Lekeition.	Goigana, Iñaki
2019/05/04	Maiatzaren 4an eta 5ean: Bidaia Point de Gravera.	Goigana, Iñaki
2019/05/10	[19:30] Memoria Historikoari buruzko bideoaren aurkezpena, Bakion (euskaraz eta gaztelaniaz).	Goigana, Iñaki
2019/05/30	[10:00] Leah Manning-i buruzko elkarrizketa, telefono bidez, Onda Vasca irratia.	Guezala, Luis de
2019/06/06	Tele 7: Bilboko erorketari buruzko mahai-inguruan parte-hartzea.	Guezala, Luis de
2019/09/05	[19:00] Koldo San Sebastián, Iñaki Anasagasti eta Jean Claude Larronderen “Los años oscuros” liburuaren aurkezpena, Fnac-en	Guezala, Luis de
2019/09/22	Omenezko ekitaldia Zirardamendin: hedabideentzako elkarrizketa eta hilobietarako mendi-gidaritza.	Goigana, Iñaki
2019/11/05	Erbesteari buruzko Biltzarrean (Donostia) parte-hartzea.	Goigana, Iñaki
2019/11/20	[10:30] Bilboko erorketari buruzko telebista-saioaren grabazioa EITBrentzat.	Goigana, Iñaki
2019/11/20	[13:00] Gernikako batzar-etxeari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irrati.	Guezala, Luis de
2019/12/03	Bizkaia Irratia: hamabost egunik behingo saioa .	Goigana, Iñaki
2019/12/15	Euskadiko lehendakariari buruzko erakusketa Batzar Nagusietan (Gernika)	Goigana, Iñaki

IV. NORBANAKOEN DOHAINTZAK

Aurten, **33** pertsonak eta/edo erakundek bat egin dute Abertzaletasunaren Agiritegiarekin dokumentazioa emanda. Kopuru horretatik, **16 email berri** izan dira 2019an. Agiritegian, **1.540** dohaintza jaso dira guztira orain arte.

V. IKERTZAILEAK

2019an, **42 ikertzailek** kontsultatu dituzte gure agiri-funtsak aretoan bertan (iazko kopuruaren ia erdia).

9.1 | Urteko balantzea

Durante el pasado ejercicio 2019, el Museo del Nacionalismo Vasco de Sabino Arana Fundazioa, nos hemos centrado en la catalogación del fondo fotográfico, reorganización del fondo de textil y artes gráficas así como del registro, inventariado y posterior catalogación de las nuevas donaciones.

Como en años anteriores hemos contado con más de una quincena de alumnos/as en prácticas de la UPV/EHU de Letras; y de Bellas Artes, de la especialidad en Grado de conservación y restauración de bienes culturales y del Máster en conservación y exhibición del arte contemporáneo, quienes han invertido más de 1.700 horas para llevar a cabo la labor de digitalización, descripción técnica, tratamiento de la imagen de diferentes fondos y la restauración de algunas de nuestras piezas.

Hemos seguido trabajando en la organización, inventariado y catalogación de los siguientes fondos:

Fondo fotográfico: se ha procedido al registro, catalogación e inserción del cuño “Sabino Arana Fundazioa” a más de 1.700 imágenes incorporadas en este año:

- Registro, catalogación, digitalización e inserción del cuño, a las imágenes pertenecientes al fondo de donaciones particulares.
- Descripción física y tratamiento de contraste de las imágenes registradas.
- Inventario de identificadores, estado de conservación, números de copias, etc.
- Indexación de las imágenes en cada ficha textual correspondiente.
- Instalación en soportes adecuados según tamaño, estado de conservación, etc. en álbumes fotográficos, mediante sobres con pH neutro de distintos tamaños, adecuados a cada imagen.

Artes Gráficas. Sección carteles: se ha continuado con el inventariado de nuevos asientos y procedido a su registro mediante fotografía digital.

Esta sección ha sido trabajada por estudiantes en prácticas del Grado de conservación y restauración de bienes culturales, y del Máster en conservación y exhibición del arte contemporáneo de la Facultad de Bellas Artes, quienes han llevado a cabo el inventariado de más de 200 registros y la restauración de alguno de ellos.

Artes Gráficas. Sección de pegatinas: se ha continuado con la catalogación de las nuevas incorporaciones realizada por alumnos de la Facultad de Bellas Artes y de la Facultad de Letras, quienes han llevado a cabo el inventariado y catalogación de más de 1.300 registros.

Artes Decorativas: se ha procedido a la reorganización y nueva instalación de más de 950 objetos. Esta labor ha sido realizada por estudiantes en prácticas de la Facultad de Bellas Artes. Aparte, se ha realizado el registro y catalogación de nuevos materiales.

Pinacoteca: se ha procedido a la catalogación e instalación de las nuevas incorporaciones que hemos recibido en el Museo a lo largo de este año. Esta labor ha sido realizada por estudiantes en prácticas de la Facultad de Bellas Artes.

Así como la restauración por parte de alumn@s del Máster de algunas de las piezas que conservaba el Museo que se encontraban algo deterioradas, realizando una limpieza en profundidad y la restauración de parte de la pintura dañada.

También se ha llevado a cabo la limpieza de uno de los cuadros donados durante este año.

Fondo textil: análisis, inventariado y catalogación de las nuevas adquisiciones que han llegado a nuestra institución este año.

Así como el aspirado de algunas de las piezas y la creación de fundas especiales realizadas a medida en tyvet para su mejor conservación.

Conservación preventiva: En este apartado hemos llevado a cabo la restauración de:

SE/0076 PEANA MADERA TALLADA ESTILO LUIS XV

Peana de madera de nogal tallado con policromías en oro y placade mármol (onix) en la superficie superior.

Estilo Luis XV.

Siglo XIX.

Medidas: 142 x 50 x 50cm.

Estado de conservación

La madera presenta suciedad generalizada y ataque de xilófagos con falta de materia en una de las patas.

El mármol presenta roturas con importantes faltas de materia suciedad.

Tratamiento de conservación-restauración realizado

■ **Mármol**

Primeramente se han desmontado dos molduras, de las cuatro que enmarcan el mármol, para poder acceder a las piezas rotas del mismo. A continuación se ha limpiado la superficie y las zonas de las roturas y seguidamente se han encolado las piezas sueltas. Se han reintegrado las faltas con Miliput teñido con tierras y finalmente se ha pulido toda la superficie y aplicado cera microcristalina. Se han encolado las molduras desmontadas.

■ Madera

Se ha aplicado tratamiento anticarcoma a las zonas atacadas. A continuación se ha realizado una limpieza con símil de aguarrás y finalmente se ha aplicado una mano de goma laca.

En relación a los fondos ya descritos e inventariados cabe destacar que a lo largo del pasado ejercicio 2019, el Museo del Nacionalismo Vasco ha atendido a cerca de 200 consultas y se han utilizado más de 310 imágenes diferentes pertenecientes al fondo fotográfico para Facebook e Instagram y los artículos “Historias de los vascos” publicados en DEIA.

Actualmente, continuamos con el inventariado e instalación en sus soportes correspondientes de las donaciones recibidas durante 2019. En este sentido, cabe destacar los materiales recuperados para los diferentes fondos: fotográfico, textil, artes gráficas, artes decorativas, etc.

Por otro lado, nuestra oferta didáctica durante el 2019 se ha visto ampliada, llevando a cabo quince tipos de talleres diferentes, de motivación creativa; el último sobre el origen de la fotografía. Todos ellos dirigidos a escolares de distintas edades.

Así como el inicio de una serie de conferencias dirigidas a personas mayores sobre la historia, tradiciones y leyendas de nuestro País.

9.2 | Consultas y colaboraciones

A lo largo de todo el año 2019, el Museo del Nacionalismo Vasco ha recibido más de 250 consultas y servido más de 2.000 imágenes entre:

- a) Medios de comunicación: *Cadena Ser radio Prisa, DEIA; EITB ; El Correo; Revista Mugalari, Bilboko Aldizkaria...*
- b) Distintas instituciones: *Artxandape Ikastola, Ayuntamiento de Bergara, Ayuntamiento de Erandio, Ayuntamiento de Lasarte Oria, Ayuntamiento de Mañaria, Bermeo Uri Buru Batzarra, Diputación Foral de Bizkaia, Eusko Ikaskuntza, Fundación “Museo de la Paz de Gernika”, Galdakao Uri Buru Batzarra, Gipuzku Buru Batzarra, Gobierno Vasco. Patrimonio Cultural, Gogora. Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, Larreaburu Ikastola, Logaritmo Diseño Gráfico, Ministerio de Educación y Formación*

Profesional, Museo de l' Exili, Museo de la policía vasca, Museo de las Encartaciones, Parlamento Vasco, Partido Nacionalista Vasco, Universidad del País Vasco. Facultad de Letras, Uribarri Ikastola, Zamudio Ikastola, Zurbaran Ikastola...

c) Editoriales: *Pamiela; Santillana...*

d) Productoras: *Amazon Prime, Antonio Ferrer, Cuerdos de Atar , Digitalak, Lavinia Audiovisual S.L., New Digitalak, Buklean*

e) Investigadores y particulares.

9.3 | Talleres didácticos, conferencias y colaboraciones

Los objetivos generales son: desarrollar la creatividad, fomentar y conocer las artes plásticas entre el público infantil, fomentar el euskera y la historia vasca y trabajar en equipo e individual.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. BILBO ERAIKITZEN

CONSTRUYENDO EL FUTURO. CONSTRUYENDO BILBAO

Este taller tiene como finalidad el conocimiento del pasado y presente de Bilbao combinando imágenes de ayer y de hoy. Para ello utilizamos fotos antiguas y actuales, pinturas para darles color y una base de cartón donde se realizará un montaje para lograr así el efecto 3D.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: GANBERA ESTENOPEIKOA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: CÁMARA ESTENOPEICA

En este taller desarrollamos los principios de las cámaras fotográficas tradicionales, creando una cámara de fotos a partir de una simple caja de cartón convirtiéndola en una cámara estenopeica.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: TXIMISTARGAZKIA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA

Mediante este taller trabajamos la fotografía desde otro punto de vista poco usual, una técnica totalmente diferente con la cual se obtienen imágenes sin cámara fotográfica.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KOLORE HIPERKONEKTATUAK

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: COLORES HIPERCONECTADOS

A través de este taller trabajamos el color en su línea más abstracta y experimental.

HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO:

GUERNICAREN KOLOREA BERRINTERPRETATZEN

HISTORIA: CONOCER PARA TRANSFORMAR: REINTERPRETANDO EL COLOR DEL GUERNICA CONTROVERTIDAMENTE

En este taller trabajamos la historia vasca y conocimos más de cerca a uno de los artistas internacionales más relacionado con ella, Pablo Picasso y su obra el “Guernica”

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: KALEIDOSKOPIOA LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: CALEIDOSCOPIO

Aquí trabajamos el reciclaje y las artes plásticas. El objetivo es que construyan su propio juguete para desarrollar la percepción visual.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: TAUMATROPOAK LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: TAUMATROPOS

El objetivo del taller es iniciar a los niños y niñas en los conceptos más básicos del cine a través de la realización de una actividad lúdica y creativa. Este juguete óptico genera la ilusión de una imagen en movimiento.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ARBOGLIFOAK HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS

Con este taller les introducimos en la historia de la emigración de los pastores vascos a muchos rincones, sobre todo de América y les explicamos que son los arboglifos.

IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURREN AMAMAREKIN ESCRIBIR Y SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

En colaboración con la escritora Toti Martínez de Lecea y tomando como base sus libros de “NUR” motivamos y fomentamos el hábito a la lectura.

COLABORACIONES

Participamos con la cesión de algunas de nuestras piezas en las exposiciones permanentes de los siguientes museos e instituciones:

- **Fundación Museo de la Paz de Gernika**
- **Museo de la policía vasca**
- **Museo de l' Exili**
- **Parlamento Vasco**

9.4 | Exposiciones temporales

Aroztegi Aretoa. Bergara,

en la exposición titulada “*¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939*”.

Del 18 de enero al 10 de febrero de 2019.

Museo de las Encartaciones, en la exposición titulada “*Encartaciones 1870-1975.*

El esplendor de la arquitectura contemporánea”.

Del 7 de marzo al 31 de octubre de 2019.

9.5 | Donaciones particulares

A lo largo de 2019, se han recibido en el Museo del Nacionalismo Vasco de Sabino Arana Fundazioa, más de 1.500 piezas muchas de ellas pertenecientes a la sección de artes decorativas, así como más de 300 imágenes muchas de ellas inéditas. Todo ello, fruto de las donaciones de más de setenta personas e instituciones.



Fundazioak ematen dituen sariak Sabino Aranaren jaiotegunaren oroitzapenez sortu ziren. Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu jaunak buru izan duela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXX. edizioa egin zuen urtarrilaren 27an, Bilboko Arriaga antzokian.

Azken edizioko saridunak zenbatuta, 175 pertsonak, elkartek eta erakundek jaso dute saria 30 edizio hauetan, gizartearentzako zerbitzu eta gogozko lana egitegatik. Izan ere, elkarrikeria, ahalegina, elkartasuna eta beste balio batzuk izan dira nagusi Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen urteroko hitzordu honetan.

Kultura-ekitaldi honen azken edizioan, ondokoek jaso zuten saria: Txomin Bereciartua abadea eta gizarte- nahiz kultura-eragilea, Dolores Redondo idazlea, Juanjo Mena orkestra-zuzendaria, Ana Urquijo abokatua eta Athletic Clubeko presidente ohia eta Michel Camdessus ekonomialaria eta NDFko zuzendari kudeatzaile ohia.

Urkullu lehendakariaz gain, politika, kultura eta gizarte esparruetako pertsona esanguratsu ugari izan dira ekitaldian, besteak beste, María Solana, Nafarroako Gobernuko bozeramailea; Bilboko alkatea, Juan M^a Aburto; Donostiako alkatea, Eneko Goia; Eusko Legebiltzarreko burua, Bakartxo Tejería; Bizkaiko ahaldu nagusia, Unai Rementeria; Arabako diputatu nagusia, Ramiro González; EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea, Andoni Ortuzar; EAJ-PNV alderdiaren BBBko presidentea, Ixaso Atutxa; Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Ana Otadui; Arabako Batzar Nagusietako burua, Pedro Elosegi; EUDELeko burua, Imanol Landa; Athletic

Clubeko presidentea, Aitor Elizegi; Deustuko Unibertsitateko errektorea, José M^a Guibert; Mondragón Unibertsitateko errektorea; Josu Erkoreka, Pedro Azpiazu, Jon Darpón, Bingen Zupiria, Cristina Uriarte, Estefanía Beltrán de Heredia eta Arantza Tapia sailburuak, Mikel Legarda Kongresuko diputatua; Brasilgo kontsula, Tomás González; eta legebiltzarkide, diputatu, senatari eta zinegotzi ugari.

- 2019ko ekitaldian, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lankidetzan jardun dugu “Oroimena berreskuratzeko asmoz hildakoak hobietatik aterata”. Era berean, Gerra Zibilean desagertutakoak, fusilatutakoak eta hobi komunetan lurperatutakoak aurkitzeko, hobietatik atera eta identifikatzeko helburuz, Aranzadi elkarteak garatzen ari den ikerlanen berri emango dugu.
- Martxoan, Euskadin dauden Galiziako Etxeen Irmandadea deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galziarraren sortzaileari omenaldia egingo diogu. Ekitaldi horretan, lore-eskaintza egingo da Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
- Beste erakunde, herrialdeko agintari eta Gerra Zibiletik bizirik atera ziren hainbat lagunekin batera, Gernikan, hiribilduko bonbardaketan izandako biktimen omenez egiten den lore-eskaintzan parte hartuko dugu apirilaren 26an.
- Ekainean, “Aterpe 1936” monumentuaren XI. urteurrenean parte hartuko dugu.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, gure ume eta gazteek hobeto ezagut ditzaten gure historia eta bizi gareneko ingurunea.
- Maiatzaren 4an eta 5ean, Sabino Arana Fundazioko historialari Iñaki Goiogana Frantziako Medoc eskualdera joan zen Gernika batailoiko Francisco Paco Pérez Luzarreta gudariaren omenaldian parte hartzera. Euzko Gudarosteko unitate hori, Gerra Zibilaren ostean, nazien aurka aritu zen erresistentziarekin batera Frantzia askatzeko 1944-1945 urteetan. Francisco “Paco” Pérez Luzarreta 2018ko abenduaren 23an hil zen, 96 urte zituela. Pérez Luzarretaren agur-ekitaldian, familiak, lagunak eta erakundeetako ordezkariak haizetara jaurti zituzten gudariaren errautsak, askatasunaren aldeko borrokan ibili zen guda-eremuan. Iñaki Goioganak garaiaren testuingurua deskribatu eta Paco Pérezen eta Gernika batailoiko gudarien borrokaren nondik norakoak azaldu zizkien bertaratutakoei.
- Beste ekitaldi batzuk.

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, *streaming* bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

13 | LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

JARDUEREN ONURADUNAK

Sabino Arana Fundazioaren 2019ko jarduera-programan, herrialde honen memoria kolektiboari atxikitako hainbat urteurren eta gertaera esanguratsu aintzat hartu dira, bai eta nazioartean oihartzuna izan duten beste batzuk ere. Hori guztia, XXI. mendean bizi ditugun errealitateak objektibotasunez aztertuz, etorkizunari begiratzeko helburuz. Jarduera horietan guztietan, Agiritegia eta Sabino Arana Fundazioa elkarlanean aritu dira.

Horrela, 2019ko ekitaldian, besteak beste, Gerra Zibilaren amaieraren 80. urteurrena, Eresoinka abesbatza eta dantza taldearen eta Euzkadi futbol selekzioaren azken emanaldien 80. urteurrena, Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak 40. urteurrena eta Berlingo harresiaren erorketaren 30. urteurrena jorratu ditugu.

Era berean, Gogoeta eta Eztabaida Mintzagunearen bidez eta Agiritegiak nahiz Museoak antolatutako jardueren bidez, gaur egun kezkutzen gaituzten gertakarietara hurbiltzen jarraitu dugu (ETAren amaieraren aurreko eta ondoko begiradak, Venezuelako egungo egoera politikoa, Argentinako eta Uruguako presidentetzarako hauteskundeak, etab.) Sabino Arana Fundazioaren ahalmen guztiari balioa emateko, hala nola Agiritegia, Museoak eta eztabaidagunea. Eta Hermes hiru zenbaki kaleratu ditugu; zehazki, 61, 62 eta 63. zenbakiak. Amaitzeko, Sabino Arana Sariak XXX. ekitaldia antolatu dugu.

Onuradunak

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki,

jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako.

Emandako kopuru eta datuak kontuan hartuta, aurreikusitako helburuak behar bezala bete ditugulakoan gaude.

URTARRILAK 22	Iñaki Goioanaren hitzaldia Bergaran, “Berriro inoiz ez” erakusketaren baitan.
URTARRILAK 27	Sabino Arana Sarien XXX. edizioa. Arriaga antzokian.
OTSAILAK 14	“Goian zerua eta behean lurra. Erbestera bidean. 1939” hitzaldi-zikloa, UPV/EHUko Historiako doktore eta irakasle titular Josu Chuecaren eskutik.
OTSAILAK 28	“Goian zerua eta behean lurra. Erbestera bidean. 1939” hitzaldi-zikloa, Iñaki Goiogana historialariaren eskutik.
MARTXOAK 10	Castelaori omenaldia Txurdinagako Europa parkean. Euskadiko Galiziako Etxeen <i>Irmandade</i> -arekin lankidetzan.
MARTXOAK 28	“Juan Ajuriagerra. Anaia nagusia” liburuaren aurkezpena eta hitzaldia, Eugenio Ibarzabalen eskutik.
APIRILAK 3	“Casilda Iturrizar (1818-1900)” hitzaldi-zikloa, Eduardo J. Alonso Olearen eskutik. “ <i>Casilda Iturrizar 1818-1900. Emakume aparta</i> ”.
APIRILAK 5	Europako Parlamenturako lehen hauteskundeak 40. urteurrena IEDerekin lankidetzan egindako mintegia. Hizlariak: Antonio Argenziano , Europako Gazteria Federalistako idazkari nagusia; Claes H. de Vreese , European, gai horretako ikergune handiena den The Amsterdam School of Communication Research (ASCoR) erakundeko Politika Komunikazioko irakaslea; Petr Mucha , Prahako 2000 Fundazioaren Programen Batzordeko kidea; Igor Filibi , UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako irakaslea; eta Txema Montero eta Josu Ortuondo , Europako Parlamentuko kide ohiak.
APIRILAK 10	“Casilda Iturrizar (1818-1900)” hitzaldi-zikloa, Anton Pérez Enbeitaren eskutik. “ <i>Bizkaiko ongintza XIX. Mendearen amaieran. Casilda Iturrizarren kasua</i> ”.
APIRILAK 26	Gernikako bonbardaketaren 82. urteurrena gogorarazteko ekitaldietan parte-hartzea.
MAIATZAK 4-5	Gernika batailoiko gudariei omenaldia, Soulac sur Mer (Bordele).

MAIATZAK 5	Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldeko kide izan ziren gudarientzako omenaldia, Matxitxako lurmuturrean.
MAIATZAK 10	Hitzaldia, Bakioko <i>Makatzeko Iturria</i> kultura elkartearekin elkarlanean: “80. urteurrena soldadu frankistak Bakiora sartu zirela” izeneko DVDaren aurkezpena, Iñaki Goioğanaren eskutik.
EKAINAK 1	Manuel Irujo sariak banatzeko ekitaldian parte-hartzea, Lizarran. Aurten, frankismoaren eta nazien biktima izan zen Odria Gracias familiak jaso du saria.
EKAINAK 6	Hitzaldia, Caracasko Gogoeta eta Hezkuntza Plangintzaren Zentroko zuzendaria da eta Andrés Bello Unibertsitate Katolikoaren (UCAB) errektore ohi Luis Ugalde josulagunaren eskutik.
EKAINAK 12	Garapenerako Lankidetzaren inguruko mintegia: “Afrika: garabidean den kontinente baten erronkak. Gazteak, emakumeak, urbanizazioa eta migrazioak”. Hizlaria: Mbuyi Kabunda , Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Nazioarteko Harremanen eta Afrikako Ikasketen irakaslea.
EKAINAK 20	“Berlingo harresiaren erorketaren 30. urteurrena: begirada Balkanetara eta EBko kide ez diren beste herrialde batzuetara”. PDE-EDPrekin lankidetzan. Hizlariak: Jasmin Mujanovic, aholkulari politikoa, Europako hego-ekialdeko gaien analista eta “The crisis of Democracy in the Balkans” liburuaren egilea; Anna Korbut kazetaria, Chatham House erakundeko Robert Bosch Fellowships akademiako kidea; Przemyslaw Kazaniecky, PDEren kontseiluko kidea eta Stronnictwo Demokratyczne alderdiaren Batzar Nagusiko kidea; eta Valentín Popescu kazetaria. Moderatzailea: Francisco de Borja Lasheras , ECFR (European Council on Foreign Relations) erakundeko Madrilgo bulegoko zuzendari ohia.
EKAINAK 23	Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeei omenaldia, “Aterpe 1936 (La Huella)” de Artxanda.
UZTAILAK 17	“Euskara indarberritzen jarraitzeko <i>bide berriak</i> ” mintegia, Euskaltzaindiarekin lankidetzan.
URRIAK 9	Hitzaldia, Helduak Elkartearekin lankidetzan: “Segurantzaz, lapurretak, iruzurak eta maulak”, bi ertzainen eskutik.

URRIAK 14	“Begiradak ETaren amaieraren aurretik eta ondotik” mintegia. Hizlariak: Donostiako gotzain emeritua, Juan María Uriarte ; Eusko Jaurlaritzako Biktimei Arreta egiteko Bulegoaren zuzendari ohi eta Juan Mari Jauregiren alarguna, Maixabel Lasa andrea; Carmen Torres andrea, idazlea, kazetaria eta José M ^a Portell-en alarguna; Auzitegi Goreneko magistratu ohi Joaquín Giménez jauna; eta Edurne Portela idazlea. Hala berean, euskal agintari gorenek, politikariek, eta gizarte- enpresa-, sindikatu-, hezkuntza- eta eliza-esparruetako ordezkariak ere jardunaldian parte hartzeko gonbita jaso zuten. Iñigo Urkullu jaunak, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, jardun zuen buru amaiera-ekitaldian.
URRIAK 23	Hitzaldia, Helduak elkartearekin lankidetzan: “Euskal matriarkatua, egia eta alegia”, Toti Martínez de Lezearen eskutik.
AZAROAK 14	“Kultura-erresistentzia faxismoaren aurka: <i>Eresoinka</i> eta <i>Euzkadi</i> futobol-taldea (1937-1939)”, Jean Claude Larronde historialariaren eskutik.
AZAROAK 20	<i>Euskal Literatura idatziaren memoria</i> mintegia.
AZAROAK 21	“Sabino Arana eta euskara: nahas-mahasa desmitifikatzen”, Gotzon Lobera , itzultzaile eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kidearen eskutik.
ABENDUAK 4	Hitzaldia Helduak Elkartearekin lankidetzan, Oskar Benegas mediku eta idazlearen eskutik.
ABENDUAK 12	Euskarari buruzko mintegia.
ABENDUAK 20	2019KO “Sabino Arana Sarien” aurkezpena.